

QUIERDANAVARRAEUROPEANNEZKERIARRAI
SOCIALVERDEHERRIGINTZANAFARROABAIIFUT
AVARRASOSTENIBILIDADMEMORIAHISTORIC
UEBANAFARROABAIAN
PERSONAKNAVARRAEN
ISTAPAZYCONVIVENCIA
IGUALDADDIVERSIDADLGTB
NABILIDADBAKEAOY
FUTUROPROYE
ERTSONAK

GERO▷

NAFARROAKO **SOCIALVERDES**
SOZIALBERDEAK DE NAVARRA
EUROPEAN EN EUROPA



#NAFARROABIZIRIK



GEROASOCIALVERDES.EU

SOZIALBERDEA ZARA HONAKOAN SINESTEN BADUZU:

Eredu sozioekonomikoa aldatzea

Egungo eredia agortuta dago eta erabateko aldaketa eskatzen du.

Pertsonen bizimodua aldatzea

Indarrean dagoen **ekoizpen eta kontsumo eredia aldatu behar da**, baina pertsonen **bizimodua ere aldatu** behar da.

Ekonomia zirkularra erreferente gisa

Kontsumoa murriztea, berrerabiltzea, birgaitzea, birziklatzea. Eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien sustapena, gure mendekotasuna eta CO2 isurketak murrizteko. Mugikortasun berdea, eraikuntza iraunkorra, 0 kilometroko politikak, hondakinen kudeaketa. **Gizarte Ekonomia erreferente gisa bere jardunbideetan.**

Europako Itun Berde berria

Izan ere, **SOZIALBERDE** izatea "Europako New Green Deal" –aren eskutik joatea da, "**Navarra Green**" bezala. **Oreka soziala garapen ekonomiko eta ingurumen iraunkortasuna**rekin uztartzen dituen.

IRAUNKORTASUNAREN aldeko itun zabala

Adostasun politiko eta instituzional zabalena eta gizarte osoa hartzen duena. Eta, ezinbestean, **belaunaldien arteko adostasuna** behar du, etorkizuneko belaunaldien beharrak asetzeko bermea barne hartzen duena.

Asmo handiko Ongizate Estatua

Iraunkortasunaren 4 ardatzak **ziurtatzea: iraunkortasun soziala, ingurumenekoa, energetikoa eta aurrekontukoa**, balio eta sistema demokratikoen esparruan. **Nafarroako autogobernua** politika publikoen funtsezko oinarria izanik.

Adostasun handiak behar ditugu, asko baitago aldatzeko eta hobetzeko.

SOZIALBERDE hitza giza behar kontzeptuaren beraren inguruan **adostasun berriak eraikitzea** da, egungo erronka demografiko eta ekologikora egokituak. **Adostasun publiko-pribatu berriak**, herritarren eskubide eta betebeharrak, enplegu eta elkarrekin eraikitako bizikidetzari buruzko hausnarketak barne hartzen dituztenak. Landa eta hiri arteko lurralde adostasunak, belaunaldien artekoak, migrazio-arlokoak, identitateen artekoak, ideologia-arlokoak... nafar gizarte enpatikoago, integratuago, solidarioago eta benetan iraunkorrago batera hurbilduko gaituztenak.

Gizarte Kohesioa eta Lurralde Oreka Nafarroan

Desberdintasun guztien aurkako borroka eta munizipalismoaren aldeko uste sendoa oinarriturik. **Tokikoa, gure herrigintza** eta euskara erreferentziazat hartuta eta globala indartuz eta lotuz, **Europako beste eskualde batzuekin** eta Europar Batasuneko erakundeekin lankidetzan estuan arituz.

Iraunkortasun helburu NEURGARRIEKIN lan egitea

Ez dira hitzak bakarrik. Nafarroako errealitatera egokitutako **adierazle zerranda** aurkezten dugu, **NBEaren Garapen Iraunkorreko Helburuetan oinarritua.**

GAZTEEN protagonismoa

Belaunaldien arteko kontratu sozial berri baten alde. Gazteek ezin diote aurre egin prekarietate eta duina ez den enplegua dakarren zor historiko itzelari.

Beraz, sozialberdea al zara?

ZERGATIK GARA GERO

GEROA BAIEN ALDEKO APUSTUA EGITEN DUGU

Geroa Bai Nafarroa Bairen gordailuzain gisa sendotu nahi dugu.

Geroa Bai zabaldu nahi dugulako gure ikuspegi sozialberdearen eskutik, ekonomia zirkularra oinarri duen Eredu berri baten alde apustu eginez.



GOBERNU ALDERDI BAT GARA

Uxue Barkos buru zuen alaketaren gobernutik aurrera Nafarroan garatzen ari den politika berriarekin bat egiten dugu.

Egungo koalizio gobernuarekiko konpromisoari eusten diogu, Nafarroan Bigarren Trantsizio bat finkatzeko, gehiengo sozial aurrerakoitik abiatuta.



GAZTEON ALDE


GEROA etorkizuna delako gure gizartearen zatirik zigortuena garenontzat: Gazteria. Prekarietatearekin amaitzea, enpleguan duintasuna eta geure gurasoek ezagutu zuten "igogailu soziala" delakoa berreskuratzea.




#NAFARROABIZIRIK

PERTSONEN NAFARROA

- ✓ Nafarroa bertako Pertsonok osotzen dugu, **Nafar Herria**. Herritar aktibo, protagonista, parte-hartzaileak.
- ✓ Nafarroa Bizirik, halaber, gure aurreko belaunaldien jarraipen historikoa da, baita oinordetzan utzi zigutena ere, beren asmatze eta gabeziekin: **gure kultura eta hizkuntzak, gure autogobernua, gure interland euskalduna eta Europa eta munduari begiratzea.**
- ✓ #NafarroaBizirik **gure herriak dira**. Herrigintza, auzolana eta komunitate ikuspegia, **hiri eta landa-eremu biziaren arteko lurralde-oreka. Nafar Herria.**
- ✓ Nafarroa, gauza bihurtu gabe, bertako Pertsonen Herria da: berdinak, **jatorri, genero, kolore, adin, erlijio, sexu orientazio eta ideologia bereizketarik gabe.**
- ✓ Nafarroan bizi direnen Herria, baita nafartasuna kanpoan bizitzaren dutenena ere. **GEROA elkarrekin amestu eta eraikitzeko gai garenona.**





""DEFENDATZEN DUGUN
EREDU-ALDAKETAK
GARAPEN EKONOMIKOA
GARAPEN SOZIALA
LORTZEKO DELA ULERTZEA
ESKATZEN DU.

HORRELA IKUSI GENUEN
BURU IZAN NINTZEN
GOBERNUAN, ETA
HORRELA IKUSTEN DUGU
EGUNGO KOALIZIO
GOBERNUAN “

UXUE BARKOS

MUNIZIPALISMOA

Nafarroan, tokiko eta eskualdeko erakundeek Iraunkortasunaren aldeko politika sozialberdeak bultzatzen dituzte orain urte batzuk, **2015eko udal eta foruak ekarritako Aldaketa sakonaren aitziindari izanik.**

Jon Gondán
Zizur Nagusiko Alkatea



Landa-mundu bizia eta Iraunkortasuna, udalen asmo eta helburu diren aldetik, ekonomia linealetik ekonomia zirkularrera aldatzeko ekarpen onena dira; izan ere, **gure herriak herritarren ongizatean, hazkunde ekonomikoan eta ingurumenean** eragina duten tokiko eta eskualdeko zerbitzu publikoetan funtsezkoak diren erabakien erantzule dira.

Gorka Azpiroz
Lekunberriko alkatea



Udal-eremuko ekimen politiko independenteekin identifikatzen gara, gizarte arloan aurrerakoiak argi eta garbi, Nafarroako berezko hizkuntzen koexistentzia bultzatzen dutenak, alderdien arteko zeharkakoak eta lerrokatu gabeak, eta Iraunkortasunarekin konprometituak. **Lurralde-orekaren eta landa-eremu Biziaren defendatzaileak eta bultzatzaileak, aniztasunean aberatsa** den baina hiriburuaren inguruko hiri-kontzentrazioa arrisku handiz makurtua dagoen Nafarroa honetan.

Pablo Azcona
Lodosako alkatea eta Geroa Baike Legebiltzarkidea



ZER DA NAFARROA SUBJEKTU POLITIKO DELAKOA?

Nafarroa subjektu politikoa dela aldarrikatzen dugu objektu politikoa gisa erabili nahi gaituen proposamen politikoren ororen aurrean. **Nafar herritarrei beren patu politikoaren subjektu izatea onartzen ez dietenean.**

Aniztasun eta aberastasun kulturala defendatzen dugu elkarbizitzarako esparru gisa, Nafarroak berezko hizkuntzak "bere" sentitu eta hitz egiten dituelako aldi berean. Eta **gure betebeharra euskara sustatzea da; izan ere, "Nafarroako berezko hizkuntza" izanik**, modu eskandalagarrian gutxitzen du erabilera eta garapena mugatzeko politikoki sortutako lege batek, nafarren borondateak egunez egun gainditzen duena.

Autogobernuaren defentsa, aurrera egin eta **herritarren gizarte-ekitatea eta kohesioa** lortzeko lan esparru gisa.

27 bazkideko Europar Batasunak 31 ogasun ditu, eta Nafarroa horietako bat da. Testuinguru horretan, Nafarroak eredu aldaketaren aldeko apustua egin behar du, "garapen sozialaren aldeko garapen ekonomikoa"ren eredu izan behar du.

GERO ▶

NAFARROAKO **SOCIALVERDES**
SOZIALBERDEAK DE NAVARRA
EUROPAN EN EUROPA

**PLANETA
BABESTEKO
MODURIK
ONENA
PERTSONA
BABESTE DA.**

**HORREGATIK
GARA
SOZIALBERDEAK.**